BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

# INGURUMENEKO EBALUAZINO TXOSTEN TEKNIKOAK EZ DAU ERAGIN KALTEGARRIRIK HAUTEMAN GAZTELUGATXEKO SAN JOANGO APARKALEKURAKO PROIEKTUAN

- **Holan ziurtatu dau Elena Unzueta Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzordearen aurrean.**

*(Bilbon, 2020ko urtarrilaren 13an)*.- Elena Unzueta Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzordearen aurrera etorri da, Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu taldeek eskatuta, Gaztelugatxeko San Joan inguruko Urizarreta aparkalekuaren ganean ingurumenaren ikuspegitik egin diran azterlanen ganeko informazinoa emoteko. Elena Unzuetak saileko teknikariek egindako ingurumeneko ebaluazino txostena irakurri dau, eta bertan esaten danez ez dago eragin kaltegarririk eta isurketen mailak ez dau gora egingo. Hori dala eta, proiektuak aldeko txostena jasoko dau.

Foru Diputatuak adierazo dauenez, 51 automobil, 2 autobus eta bizikletak aparketako lekuak izango dituan aparkalekua, daborduko onetsita dagon eta hainbat neurri moltsoaren barruan dagon aurreko proiektuan jasoten da. “Azken helburua garraio pribaduaren erabilerea murriztea da”, azpimarratu dau Unzuetak. Gaztelugatxeko San Joan turista asko joaten dan lekua bilakatu da, eta joan dan udan bakarrik 235.000 bisitari izan ebazan.

Elkarrekin Bizkaia taldearen izenean, Xabier Benitok proiektua, “milioi eurotik gertu dagon 1.600 $m^2$ko molea dala” esan dau, eta kontra agertu da. “Idea txarra da, ezer konpontzen ez dauen oso inbertsino handia dalako eta ingurumenagaz erlazionauta hainbat arazo sortzen ditualako, eta, ganera, ez dauelako ibilgailu pribaduaren erabilerea murriztuko”.

“Non sartzen da proiektu hori klimaren aldaketaren kontrako estrategiaren barruan?”, galdetu dau EH Bilduko Iratxe Arriolak, eta “ingurunea artifizialdu egiten dauela” kritikau dau. Arriolak proiektua barriro planteetea, Bermeotik eta Bakiotik Bizkaibuseko anezkak martxan jartea eta Gaztelugatxeko San Joanera oinez edo bizikletaz joateko bidea eregitea eskatu dau.

Eduardo Andraderen (Talde Berezia / PP Bizkaia) eretxiz, proiektua “ia itzulezina izango dan ingurumeneko eragin larria daukan obrea” da.

“Aurkeztu diran txostenak aztertuko doguz”, adierazo dau Amaia Rebollok (Euskal Sozialistak), Unzuetaren azalpenak eskertu ostean. Gorka Beitiak (Euzko Abertzaleak) azpimarratu dauenez, Aldundiak dituan txostenak zabalak eta edegiak dira, eta eztabaidea termino politikoetan eta ez teknikoetan gauzatu izana kritikau dau.

**Getxoko Akuarioa**

Unzueta Elkarrekin Bizkaia taldeak eskatuta be etorri da Batzordera, Getxoko akuarioa itxi izanaren ganeko azalpenak emoteko. Foru Diputatuak adierazo dauenez, Getxoko Udalagaz adostu zan akuarioa ixtea, Aldundiak bete egin ditu Udalagaz sinatu zan eta joan dan urrian iraungitu zan hitzarmenaren alderdi guztiak eta bere Sailak ez dauka ezelango zerikusirik akuarioan zerbitzua emoten dauen enpresagaz dagon kontratu hartu-emonean.

Batzordeak ez dau onartu Javier Arbuniés Erceren agerraldia. Biologoa da, iraunkortasunean aditua, eta Nafarroako Hondakinen Plana egiteko prozesuan hartu dau parte. Elkarrekin Bizkaia taldearen eskariak ez dau aurrera egin Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabelako, eta proposamena aurkeztu dauen taldeak, EH Bilduk eta Talde Bereziak / PP Bizkaiak, aldekoa.

Bukatzeko, Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko diputatuak, Elkarrekin Bizkaia taldeak Zugaztietako “Ostión” pozuaren garbiketaren ganeko ahozko erantzun-eskeari erantzun deutso. Unzuetak adierazo dauenez, garbiketea arin egin zan aintziraren alde batean, bertatik pneumatikoak eta baita ibilgailu bat be, kendu zirala, eta pozua garbitu zala, hori buzoentzat arriskutsua izan zan arren. Uda osteko euriteak dirala eta, pozua barriro bete da.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

# EL INFORME TÉCNICO DE EVALUACIÓN AMBIENTAL NO DETECTA EFECTOS ADVERSOS EN EL PROYECTO DE APARCAMIENTO DE SAN JUAN DE GAZTELUGATXE

- **Así lo ha asegurado Elena Unzueta, Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, ante la Comisión de las Juntas Generales de Bizkaia.**

*(Bilbao, a 13 de enero de 2020)*.- La Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural Elena Unzueta ha comparecido en Comisión de las Juntas Generales de Bizkaia, a petición de Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu, para informar acerca de los estudios elaborados sobre el impacto mediambiental del parking de Urizarreta en el entorno de San Juan de Gaztelugatxe. Elena Unzueta ha leído el informe de evaluación ambiental elaborado por los técnicos del departamento y que concluye que no hay efectos adversos y que no aumentará los vertidos, las emisiones ni los vertidos y, por tanto, el proyeco ha obtenido un informe favorable.

La Diputada Foral ha asegurado que el aparcamiento, que contará con plazas para 51 turismos, 2 autobuses y bicicletas, se encuentra dentro de un proyecto anterior ya aprobado y que forma parte de un conjunto de medidas. “El objetivo final es desincentivar el uso del transporte privado”, ha subrayado Unzueta. San Juan de Gaztelugatxe se ha convertido en un foco de gran afluencia turística que sólo el pasado verano registró 235.000 visitantes.

En nombre de Elkarrekin Bizkaia, Xabier Benito ha definido el proyecto como “una mole de 1.600 m² con un valor cercano al millón de euros” y ha mostrado su rechazo. “Es una mala idea porque es una inversión enorme para no dar solución a nada y por razones medioambientales porque no va a reducir el uso del vehículo privado”.

“¿Dónde encaja este proyecto en la estrategia del cambio climático?”, ha preguntado Iratxe Arriola, de EH Bildu que ha criticado que “artificializa el entorno”. Arriola ha pedido un replanteamiento del proyecto y que se pongan en marcha lanzaderas de Bizkaibus desde los municipios de Bermeo y Bakio y se construya un camino para acceder a San Juan de Gaztelugatxe a pie  o en bici.

Eduardo Andrade (Grupo Mixto / PP Bizkaia) ha descrito el proyecto como “una obra de grave impacto ambiental prácticamente irreversible”.

“Estudiaremos los informes presentados”, ha asegurado Amaia Rebollo (Socialistas Vascos), tras agradecer las explicaciones de Unzueta. Gorka Beitia (Nacionalistas Vascos) ha destacado que los informes forales son amplios y abiertos y ha criticado que el debate se haya desarrollado en términos políticos y no técnicos.

**Acuario de Getxo**

Unzueta ha comparecido, también a petición de Elkarrekin Bizkaia, para dar explicaciones sobre el cierre del acuario de Getxo. La Diputada Foral ha asegurado que se acordó cerrar el acuario con el Ayuntamiento de Getxo, que la Diputación ha cumplido todos los aspectos del convenio firmado con el consistorio y que dejó de estar en vigor el pasado mes de octubre, y que su Departamento es ajeno a la relación contractual con la empresa que presta servicio en el acuario.

La Comisión ha rechazado la comparecencia D. Javier Arbuniés Erce, biólogo y consultor especializado en sostenibilidad y participación en la elaboración del Plan de Residuos de Navarra. Esta petición de Elkarrekin Bizkaia no ha prosperado al registrar los votos en contra de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos y a favor del grupo proponente, EH Bildu y Grupo Mixto / PP Bizkaia.

Por último, la Diputada de Sostenibilidad y Medio Ambiente ha contestado a una pregunta oral de Elkarrekin Bizkaia sobre la limpieza del pozo “Ostión” de La Arboleda. Unzueta ha asegurado que la limpieza se llevó a cabo con agilidad en los márgenes de la laguna, que se retiraron neumáticos y hasta un vehículo y que se procedió a la limpieza del propio pozo, no sin riesgo para los buzos. Las lluvias posteriores al verano provocaron que el pozo se volviera a llenar.